


# bidegileak



**Tomas Garbizu (1901-1989)**

Egileak:

**PATXI INTXAURRANDIETA**

**PATRI URKIZU**

## Etxeak habea

Tomas Garbizu, organoak liluratu bazuen ere, era guztietako musika egiten tre-bea da: orkestrarako, txisturako, kanturako, pianorako, ganberarako eta abarretarako. Euskal Herriko elizetan egunero abesten diren hainbat gortzarre, antifona, salmo eta bestelako kantu eder utzi zizkigun, gainera.


Hamar senideen arteko zortzigarrena, Tomas Garbizu Salaberria Lezon jaio zen 1901eko irailaren 12an, 15 zenbakia zuen San Juan kaleko etxean eta goizeko hamaika eta erdietan, bere jaiotza-agiriak dioenaren arabera.

Gurasoak Kandido Garbizu eta Maria Salaberria. Anaia-arrebak: Jon Zubigar


olerkaria, Daniel Iruzubi, Jose eta Liborio apaizak, German eta Martzelina (gaztetxo hil zirenak), Anjela, Margarita eta Benita.

Etxeak habea, noski, Tomasek bidegile onak zituen bere senideak.

Jon Zubigar olerkariak ohorezko saria eta ohorezko aipamena jaso zituen 1924an *Oste-gun Deuna* eta *Euskera arrobiztat* olerkiekin. Cervantesen *La Señora Cornelia* itzulpenarekin ere saria irabazi zuen, 1928an. Ezagunak



Tomas Garbizu (1901-1989).



Tomas eta Liborio, anaia gazteena.

dira Aizkorri ta itxasoa eta Txori ausarditsuak lanak ere. Zeruko Argia, Euskal Esnalea, Argia, Aranzazu aldizkarietan eta Buenos Aireseko La Baskonia agerkarian ere ezagunak dira Zubigar olerkariaren lanak. Euskaltzaleak elkartearen lehen idazkaria izan zen, gainera. Trenak harrapatuta hil zen Jon 1930ean, 36 urterekin.

Daniel olerkari eta bertsolari ere bazen. Iruzubi izengoitiz argitaratzen zituen bere lanak Euskal Esnalea eta Argia aldizkarietan.

«Jaizkibel Mendi» olerkiarekin Euskaltzaindiaren saria irabazi zuen.

Era horretako senideen artean hazi zen Tomas. Gurasoek ere berehalaxe jarri zuten kulturarako eta musikarako bidean.

Solfeoko oinarriak eta musikarako diziplina parrokiako koruaren jardunean bereganatu zituen, garaiko beste hainbat haurrek bezala. Entzun diezaiozun berari nola kontatzen duen grazia bereziaz bere gaztaroko garai hura:


... nire garaian Jose Gezala jaunaren etxera joaten ginen solfeo klaseak ematera, bera baitzen parrokiako organista. Inork ez zuen don Jose deitzen, ezta Jose bakarrik ere, baizik eta Josetxo. Jenio txarra zuela ez esatearren, esan dezagun oso bizia zela. Bere eginkizunak betetzen oso zuzena eta metodikoa. Normalean nahiko zakarki tratatzen gintuen; horrelaxe zen bere izakera, baina gaiztakeriarik gabekoa, beste irakasle asko bezalaxe. Entzun izan dudanez, gurekin baino gogorrago zen handiagoekin, gu baino lehenago klaseetara ibili zirenekin. Diotenez,



Gurutze Santuaren plaza XX. mende hasierako argazkian.



Tomas, Lezoko luistarren artean.



Lezoko San Joan Bataiatzailearen parrokia. Jabier Salaberriaren marrazkia (1963).

patxada handiz agurtzen zituen: *Adiós, caballeros...* batekin eta ondoren berehalaxe: *Majaderos, más que majaderos!*... eta eskaile-retan behera korrika joaten ziren [...] Nik parrokiako Koruan kantatzen nuen, zuzendari Julian Ayestaran jauna zelarik [...] Musika

banda bazegoen eta zuzendari Florenzio Gezala zen (Pontxio)...

Izan zuen, gainera, Tomasek etxean bertan ere musikara lerratzen lagunduko zion giro aproposa. Jose Millan, anaia zaharrenarekin egin baitzituen lehen piano ikasketak.

## Arantzazu aldean

Arantzazuko Ama Birjinaren egunean, 1916ko irailaren 9an, bertako seminario serafikora joan zen ikasketetan sakontzeko asmoz. Lau ikasturte oso egin zituen bertan. Berak sarritan bestelakorik esan bazuen ere, eta orduko emaitzek erakusten dutenez, ikasle bikaina izan zen. Latina, grekoa, erretorika, aritmetika, euskal gramatika eta beste hainbat ikasgaiaren artean, solfeoa, pianoa eta gregorianoa ere ikasi zituen. Arantzazuko inguruneak eta giro bilduak inoiz urratuko ez zen arrastoa utzi zuten Tomasen gogoan. *Arantzazu, Aloña, Urbia, Benedicta, Angelusa...* Tomasen bihotzean urrezko hizkiz idatzitako esanahi bereziko hitzak dira.

Arantzazuko lau urteen buruan erabakita zuen musika ikasketa serio eta sakonak egin behar zituela. Donostiako Musika Akademitan pianoa ikasi zuen Jose M<sup>a</sup> Iraola irakaslearekin eta harmonia Beltran Pagolarekin.

Organo ikasketak bere kasa egin zituen arren, musika heziketa sendoaren jabe zen, Pasaia San Pedroko organista eta elizako koruaren ardurak bere gain hartu zituenerako. Lezon bizi zelarik, oinez edo batelez joaten zen bertara elizkizunek eta hartutako konpromisoek hartara behartzen zuten bakoitzean. Konposiziorako gaitasunak ere oso finkatuta zituen garai hartarako.



Pasaia San Pedroko Cavaillé-Coll organoa.

## Idazlea

Bere anaia Jonen, –Zubigar bezala ezagutua zen olerkariaren–, bideari jarraiki, 1921erako hasia baitzen bere poemak eta lanak argitaratzen *Euzkadi*, *Argia*, *Aranzazu*, *Irrintzi*, *Euskal Eснаlea* aldizkarietan eta abarretan.

Tomas Garbizu ere, Tege ezizenez hasi zen idazten eta plazaratzen 1924az geroztik olerkiak, ipuinak, umorezko xapladak eta izkirimiriak, politika-antzerki-musika kronikak *Euskal Eснаlea*, *Txistulari*, *Argia*, *El Día*, *El Pueblo Vasco*, *Argiaren Egutegia* aldizkari eta egunkarietan.



Errepublika garaian, Donostiako Irratetxean ere egiten zituen bere lantxoak Aitzol eta Lauaxetak bezalaxe.

*Euzkadi'ko Txistulari Batzak*, 1933an, Arturo Campioni eskaini zion omenaldian hantxe izan zen *Txistulari* aldizkariko idazle euskaldunak ordezkatzeko.

Bere iritziek oihartzuna ere bazuten, Antonio Labaienek zuzentzen zuen *Antzerki* aldizkarian (1932-36) behin baino gehiagotan jasoak izan zirenez. Eta *Saski-Naski* taldean hala nola Lezoko batzokiko taldearekin, besteak beste, 1935eko otsailaren 7an Donostiako Poxpolin Antzokian Viarrek gaztelaniaz idatzi *Alma vasca* eta Altunak itzuli *Euzko-Gogoa* antzerkian parte hartu zuen.

1991. urtean, Lezoko Udalak argitaratu liburu honetan Patxi Intxaurrendieta eta Patri Urkizuk bildu dituzten Jon Zubigar, Daniel Iruzubi eta Tomas Tege Garbizu anaien euskarazko gerraurreko testuak.



Arturo Kanpionen omenaldia (1933).

## *Iratzeder eta Lebout-ekin*

*B*este abertzale eta errepublikazale askok bezala Gerra zibilaren ondorioz ihesi joan beharrean aurkitu zen eta Iparraldera jo zuen Tomasek.

Urte latz haietan bere bizitzan garrantzi handia izango zuten bi gizon ezagutzeko aukera izan zuen: Xabier Dihartze donibandar gaztea, Iratzeder idazlea bilakatuko zena eta Charles Lebout organista eta konpositore paristarra.

Xabier Dihartze Tomas baino ia hogeitau urte gazteago izanik ere, Donibane Lohizuneko itsasertzean ordu asko eman zituzten elkarrekin ibilbide luzeak eginez. Han uztartu ziren betiko

urteen buruan uzta bikaina emango zuten bi sentsibilitateak.

Charles Lebout Pariseko organo-joleak Donibane Lohizunen hartu zuen bizitoki. Ospe handiko organista eta konpositore honek berehala erreparatu zion Tomasen musika-senari. Maisuaren aholkuek eta Frantziako organo tradizioan inprobisazioari eman ohi zaion garrantziak izan zuten eragirik Tomasek ondoko urteetan bereganatuko zuen organista ospearekin. Gerraostean, oraindik ere, maisu frantsesak Tomasi Madridera igorri zion gutun batean hau zioen: «Travaillez, travaillez, car vous êtes capable d'atteindre des buts que d'autres artistes n'y arriveront à le faire» (Egizu, egizu lan, beste artistek inoiz atzemango ez dituzten helmugetara iristeko gai baitzara).

Gerra garaiko hautsak nekez harrotzen bazi-tuen ere, Tolosan euskal musikaren funtsaz ari zelarik esandakoak dira honako hauek:

... euskal musikaren mamia zertan datzan... Arrazoi batzuen artean datza Arcachon-en lastoartean lo egiteko odisea esperimentatzea gerra bitartean, aita eta ama hiltzen ikusi gabe, gero Irungo koarteliloa dagoen edo kokatuta zegoen tokian lurrean etzatea, edo Gobernu Zibileko kalabozoan aulki baten gainean, edo Ondarretako gelaxkan, leku estu batean sei edo zazpi pertsona pila-tuta, komun bat aurrean, trapu txiki batekin estalia, ikuskizun irrigarria disimulatzen zue-larik nolabait, azkenean Euskaditik kanpora irteteko desterraturik, eta pentsioz aldatzea behartuta egotea.

Gerra amaitu zen urte berean, Tomasen gura-soak Lezoko *Aldasoroenea* etxean hil ziren sei hilabeteren barruan.

## Madriden

Senideekiko lotura besterik ez zuelarik, Madridera abiatu zen Pasaia San Pedroko organista izateak baino itzal luzeagoa emango ziolakoan argi berri bila. 40ko hamarte osoa eta 50ekoaren bizpahiru urte hiriburu hartan eman zituen. Ez zuen bizimodu erraza izan musika munduan izena lortu besterik nahi ez zuen jada berrogei urteko lezoarrak.

*Circo Price, Lope de Vega, Fuencarral, Teatro de la Comedia* antzokietako hainbat emanal-ditan pianoz lagunduz, San Markos parrokiako eta Frantziak Madriden zuen enbaxadako organista lanetan jardunez, eskola partikula-rrak emanez eta *Alas de Paz* (1943) eta *Diez fusiles esperan* (1954) filmetako musika eginez pasatu ziren Madrideko Tomasen urteak.



Madriden konposizio ikasketak amaitu zituenean, domina hau jaso zuen Mariá Benlliure eskultore handiaren eskutik.

Cartagenako kondearen beka bati esker, konposizio ikasketa sakonak burutu ahal izan zituen. Sorkuntza lanetan buru-belarri, garai hartakoak dira, beste obra askoren artean, Antonio Machado eta Rabindranat Tagoreren testuetan oinarritutako liederrak, soprano eta orkestrarako *Cinco melodías vascas* eta bereziki *Danos la paz* gizonezkoen korua eta orkestrarako kantata.

Goi mailako artistak izan zituen lankide eta lagun urte haietan: Elias Salaberria pintorea (Tomasen lehengusua), Pablo Soroazabal eta Jesus Guridi musikagileak, Jesus Mari Arozamena idazlea... Denborak zegokien maila jasoan utzi dituen maisuen inguruan ibili zen.

## ***Etxean berriro***

Etixerako bidea («kabirako bidea», bere hitzetan) hartu eta 1953. urtean Donostiako Kontserbatorioko solfeoko oposizioetara aurkeztu zen. Inoiz izan ez zuen lan-egonkortasuna emango zion katedra lortu zuen etxean. 1953-54 ikasturtean, eta Donostiako Udaletxeko Kultur Batzordeak hala proposaturik, organoko katedra ere erantsi zion aurrekoari, bi ardurak bereganaturik.

Organo-irakasle izan zen hemezortzi urteek ospe berezia eman zioten ikasle eta musikazale guztien artean. Ezbairik gabe, gaur egun Gipuzkoan organorako musikaren inguruan dagoen maila jasoak asko zor dio Tomasi.



Madriden, Salaberria pintorearen estudioko balkoian. Elias Salaberria (Tomasen lehengusua), Tomas Garbizu eta Jesus Mª de Arozamena.

Hirurogeita hamar urte bete zituen egun berean hartu zuen erretiroa. Sasoi oneko gizona, irakaskuntzaren beharretatik aske, konposizio lanari lotu zitzaion bere bizitzako azken hamazazpi urteetan.

Omenaldien garaia iritsia zelarik, Kontserbatorioko ikasleek, Euskal Herriko Txistulariek, Liturgia batzordekideek, Pasaia San Pedroko herritarrek, Lezoko herrikideek... oso gogoan izan zuten beraien alde eta, oro har, musikaren alde egindako lan guztia. Lezoko herriak, 1982ko abenduan –Patri Urkizu alkate zen garaian– «Herriko Seme Kuttuna» izendatu zuen. Garai honetakoa da, Udalak eskaturik, lezoarrentzat idatzi zuen Himnoa.

Donostiako erietxe batean eman zuen azken hatsa 1989ko azaroaren 27an, azken ordu-rarte lanerako kemena erakutsi zuen Garbizu maisuak.



Lezoko herriak «Seme Kuttuna» izendatu zueneko programaren azala.



Tomás Garbizu, sentado entre José Luis Tellería (Inquieta) y José María Zapirain. (Foto Uxo)

En la clausura de la Semana Música-Coral del Ondartxo

## San Pedro homenajeó ayer al compositor Tomás Garbizu

Pasaia (DV). — Con un homenaje de reconocimiento hacia la obra y la persona de un lezotarra que ha tenido estrecha unión con el distrito pasaitarra de San Pedro, el compositor y organista Tomás Garbizu, se clausuró ayer la Semana Música-Coral organizada por el Coro Ondartxo.

Los actos se iniciaron a las once de la mañana con una misa cantada por el Coro de Lezo e interpretada el órgano por el propio Tomás Gar-

bizu. A las 12,30 del mediodía, en el salón de actos de la Cofradía de Pescadores, se rindió el homenaje a Tomás Garbizu, con la intervención de José María Zapirain, quien glosó la figura del insigne compositor en presencia entre otros del diputado foral de Cultura, José Luis Tellería, y de las primeras autoridades de Pasaia y Lezo.

La jornada terminó con un 'poteo coral' por las calles de San Pedro y un almuerzo de hermandad.

Pasaia San Pedroko omenaldi egunean. Jose Luis Telleria, Tomas Garbizu, Jose M<sup>a</sup> Zapirain eta Mikel Arrizabalaga (Lezoko alkatea).



Tomasen azken Eguberrietako zorion oparia.



Lezoko parrokiako korua Tomasekin omenaldi egunean (1982).



Tomas Garbizu, Patri Urkizu (Lezoko alkatea)  
eta Xabier Iratzeder Lezoko herriak Tomasi eskaini zion  
omenaldi egunean (1982).



Donostiarrek  
esker onez eskaini  
zioten irudia.

## Organista

Esan gabe doa Tomasi estu loturik egon den instrumenturik bada hori organoa izan dela. Organoak liluratu zuen, txikitan, Lezoko Gurutze Santuaren elizako Merklin organo eztiari Josetxo Gezalak ateratzen zizkion soinu haiek entzun zituenetik.

Geroztik, Pasaia San Pedroko parrokian, Donibane Lohizunen Charles Lebout maisuarekin, Madrideko San Markos eta San Luis de los Franceses elizetan, Donostiako kontserbatorioan... organorako musika izan zuen beti bihotzean eta gogoan.

Bere bizitzan zehar han-hemenka kontzertu ugari eman zituen arren, ez zen, alabaina, hori

gehien asetzen zuen lana. Organista liturgiko petoa, eta inprobisaziorako ahalmen handikoa, musika sortzeko zuen dohain berezia funtzio bakoitzean isuri behar zuen. Nahiago zuen beti bere barrutik sortzen zitzaiona eskaini, besteek idatzitakoaren menpean egon baino.

Ospe handiko hainbat organista eta musikagilerekin batera organoak ere inauguratu zituen: Madrideko San Jerónimo el Real eta Santa Teresa elizetakoak. Donostiako Artzain Onaren katedralekoa. Madriden, urtebetez, Radio Nacionalek zuzenean ematen zituen organo kontzertuetan ere parte hartu zuen, Guridirekin batera sarritan.



Donostiako Santa Maria basilikako Cavaillé-Coll organoan.

## Konpositorea

*B*eharrak beharturik, gaztetandik hasi zen Tomas solfeo eta pianoko eskola partikularrak ematen. Hala ere, urte asko pasatuko ziren musika irakaskuntzan egonkortasuna lortu zuen arte. Izan ere, berrogeita hamar urtetik gorako gizona dugu Donostiako Kontserbatorioko solfeoko katedra lortu zuenean. Berehalaxe lotu zitzaion orga-



Tomasen etxeko pianoa.

no katedrari ere, eta katedra honetatik bideratu zituen maisuki gaur egun Gipuzkoan ditugun hainbat organo-jole eta musikari bikainen musika ikasketak.

Zekien guztia ikasleen zerbitzuan jarritz, errazki hauteman daitekeen eskola edo korrante baten aitzindari bilakatu zen.

Baina ezeren gainerik, eta bere bizitza guztian, Tomas musikagile, konpositore, izan zen. Ia kontaezinak dira idatzi zituen mota guztietako obrak: tangoak, habanerak, mezak, dantzak, salmoak... Era guztietako obrak atera ziren bere pentagrametatik.



Tomasekin organoa ikasi zuten hainbat ikasle. Ezkerretik eskuinera: Bitor Etxeberria, Miren Derteano, Jesus M<sup>a</sup> Alberdi, Tomas Garbizu (irakaslea), Lorenzo Ondarra, Mari Koro Saenz, Esteban Elizondo.

## Orkestrarako

Orkestrako musika idatzi zuen arren, eta ez gutxi, ez ziren hauek Tomas gehien harrotzen zuten musika-lanak. Bere burua jantziagoa ikusten zuen pianoa, organoa eta ahotsaren-tzako era guztietako musika idazteko, orkestra handiarentzako musikari aurre egiteko baino.

Hala ere, *Concierto mágico* izeneko biolina eta orkestrarako kontzertu eder bat idatzi zuen 1960. urtean. Donostiako Victoria Eugenia antzokian estreinatu zen eta orduko egunkarietan oso kritika ona jaso zuen.

*Concertante para trompa y orquesta* (1970) Kolonbiako Toliman Jose Luis Salbide zuzendaria bertako orkestrarekin estreinatu zuen.

*Arantzazuko mendi abestia; Bizkai dantza...*



1986. urtean, Gipuzkoako Foru Aldundiak hogeita zazpi kantuz osatutako koruentzako bilduma hau argitaratu zuen.

## Ahots musika

Orkestra, pianoa edo organoaren laguntzaz eta bereziki *a capella* abesteko dozenaka obra idatzi zituen Tomasek. Hauen artean, korua eta orkestrarako *Osanbela* poema koreografi-koa, *Danos la Paz* eta *Babilon beltza* kantatak eta *Aloña* pastoral nabarmentzen dira.

Berak sortutako doinu ugari utzi bazigun ere, esku artean erabili zuen material asko eta asko euskal kantutegietatik bildu zuen. *Akerra ken*, *Xauli*, *Atxia Motxia*, *Kaia barrenian*, *Ama begira zazu...* betiko kantak soineko berriz apainduak.



Ahotsa eta pianorako hirurogei pieza biltzen dituen liburu honek hiru argitalpen izan zituen. Lehena, 1971. urtean.

## Ganbera musika

Biolontxelo-pianoa, tronpeta-organoa, tronpa-organoa eta txistu-organoa/pianoa dira ganbera-musika idazterakoan Tomasek gogoa izan zituen instrumentu bikote nagusiak. Interpreteen programazioetan hartu duten tokiagatik eta entzuleen artean izan duten arrakastagatik, aipamen berezia merezi dute txistu eta organo edo pianorako harmonizazioek. *Txistulari* aldizkariak bideratu zuen txis-

tu eta txistularien aldeko mugimenduan gaztetandik parte hartu bazuen ere, bere bizitzako azkenaldian idatzi zituen instrumentu honentzako obrarik hoberenak.

Izan ere, hirurogeita hamar urteak ongi beteak zituen Tomasek Polentzi Gezala lezoar txistulariak errepertorio arrunteko hainbat doinu harmoniza zitzaizkion eskatu zionerako. *Txistulari* aldizkariaren 134. alean bildurik daude geroztik sortu zituen lan gehientsuenak.



Juan Padrosa (pianoa) eta Estanis Karrera (txistua) Lezoko Joan Bataiatzailearen parrokian, Tomas Garbizu entzule dutelarik.



Teknologia berriek ere erreparatu diote Tomasen musikari.

## Pianorako

*Retrato* (1952). Tristura eta malenkoniaren behe-lainoak biltzen duen neguaren atariko paisaia deskribatzen digu.

*Tango de concierto* (1955). Argentinari eskaini zion omenaldia da. Ongi nabarmentzen diren sarrera eta dantza lied moduan antolatuta daude: A-B-A.

*Un mandamiento nuevo* (1976). Radio Nacional irratiak egindako enkargua da. Urte horretako Ostegun Santu egunean estreinatu zen Madriden. Obra honen ardatza *Ubi caritas* doinu gregorianoa da:



*Euskal dantzak*. Ereserkia, Zagi-dantza, Azeri-dantza, Godalet-dantza, Sagar-dantza, Xoriarena, Inguru-Aundi, Inguru-Txiki...

Euskal Herriko hogeita bi dantzari erreparatu zien Tomasek bere konposizio lanetan bilduma hau osatzeko. Ez dira, ez horixe, harmonizazio hutsak eta hutsalak. Obra berriak dira, oso modernoak, Anton Larrauri musikagile bizkaitarraren laudoriozko hitzak bere garaian merezi izan zituztenak.



*Auresku*. Lau dantzen edizioa (1971).



*Eusko Cadencias* (1980). Euskal dantzak lantzerakoan erabili zituen prozedurak bildu zituen bost minutu eskas irauten duen lan garrantzitsu honetan.

## Organorako

*Cantantibus organis* (1937). Hamar konposizio laburrez osatutako bilduma hau Donibane Lohizunen idatzi zuen Gerra denboran. Geroago beste hainbat musikagilek erabiliko zituzten prozedura kromatiko eta atonalei aurre hartu zien Tomasek pieza labur hauekin. Eskukoekin baino sentimenduaren hatzekin jotzeko musika da hau Andrés Temprano kritikari ezagunaren esanetan.


*Sequentia Victimae Paschali* (1950). Donostiako Santa Maria elizan Jesus Guridi, Juan Urteaga, Bitor Zubizarreta eta Luis Taberna maisuekin batera eman zuen kontzertu batean buruz jo zuen Tomasek obra hau. Handik urte batzuetara, berriro gogora ekarriz, eraman zuen pentagramara. *Victimae Paschali* sekuentzian oinarritu zen:



*Jesus y la samaritana* (1953). *Tríptico del Buen Pastor* tituluaz ere ezagutzen da. Donostiako katedraleko organoa inaugurazioa zela-eta 1954. urtean Madriden antolatu zuten nazio-

arteko lehiaketan saria jaso zuen. Tomasek estreinatu zuen, urte berean, Donostiako Artzain Onaren katedraleko organo handian.

*Tríptico sobre un tema gregoriano* (1971). Avilako nazioarteko lehiaketan lehen saria irabazi zuen obra honekin. Izenburuak dioen doinu gregorianoa zortzi bat urte lehenago *Ecuménica* mezan erabili zuen bera da: *Cuncti-potens Genitor Deus*.



*Aunitz urte* (1974). Hasiera eta amaiera ematen dion *Agur Jaunak!* doinu ezagunaren artean beste bi hauek tartekatzen ditu: Baztango mutil-dantzako *Aunitz urtez!* eta Sarako *Agur, Bettiri*.




## Mezak

Fededun gizona izaki, liturgiarako musikak, eta mezek batez ere, toki berezia hartzen dute Tomasen musika katalogo zabalean.

Mende hasierako Pio X.aren *Motu proprio* agiriak eta Vatikanoko II. Kontzilioaren erabakiek baldintzaturik, latina, euskara eta gaztelaniazko testuak erabili zituen organo, orkestra edo instrumentu herrikoiaren laguntzaz pentagramara eraman zituen ia hogeitaz mezak idazteko.

Hiru dira, hala ere, hauen artean aipamen berezia merezi dutenak:



*Benedicta* mezaren edizioa (1984).

*Benedicta* (1956). Meza hau Arantzazuko frantziskotarrek deituriko lehiaketara aurkeztu zuen. Tomas Aragües aitarekin batera akzesita erdietsi zuen. 1961. urtean Donostiako Santa Maria elizan Orfeoia estreinatu zuen meza honetan, ohiko atalez gain, organorako *Ofertorio*, *Elevación* eta *Toccata Final* ere tartekatatu zituen.

Arantzazun bezperetan kantatzen den *Benedicta*-ren doinuak



eta beste doinu herrikoi honek



eusten diote meza bikain honen egitura guztiari.

*Ecuménica* (1962). Juan XXIII. Aita Santuak Vatikanako II. Kontziliarako deia zabaldu zutenean esker onez eta itxaropenez idatzitakoa. Meza honen organorako eta orkestrarako bertsio bana ezagutzen ditugu. *Cunctipotens genitor Deus* mezako Kyriearen hasiera da eraikuntza osoaren oinarria.

*Herriko Meza* eta *Gure Meza* ondututako zituen 1965ean eta 1966an. Aurrekoetan ez bezala, euskarazko testua baliatu zuen bi hauetan.

*Gure Meza* enkarguzko lana izanik, Columbia diskoetxeak grabatu zuen 1966. urtean. Korua, bakarlariak, txistuak, alboka, txalaparta... herriak oso bereak dituen musika-tresnak bildu zituen partitura eder honen inguruan. Bertan agertzen diren hainbat erritmo eta doinuk hasieratik erakartzen gaituzte. Berako txistulariek *Corpus* egunean jotzen duten hasierako *minué* honek, esaterako.



*Gure Meza* izeneko diskoa (1966).





Jazinto Argaia gotzaina eta lagunarekin.

## ***Liturgiarako musika***

Vatikanoko II. Kontzilioaren ondoren etorri zen eliz kantutegiaren berrikuntzan lan eskerga egin zuen Tomasek. Gaitasun aparta zuen norabide berriari behar bezala erantzuteko.

Euskara eta gaztelania maisuki menderatzen zituen bere bizitzan zehar argitara eman zituen testu eta hitzaldiek argi erakusten zuten bezala. Latinaren lehentasuna atzean



Aita Xabier Iratzeder.

geratu eta tokian tokiko hizkuntza bultzatu behar zen neurrian euskararen fonetika, prosodia eta gainontzeko arauen berri zehatza izan behar zen hizkuntza eta musika modu egokian uztartzeko.

Beste aldetik, organo-jole liturgikoa eta eliztar arrunta aldi berean izateak berebiziko gaitasuna ematen zion herria, korua eta organoaren artean behar den oreka neurtzeko eta horren arabera musika berria sortzeko.

Testuinguru honetan idatzi zituen *Aintza Zerueta* eta *Sinisten det* euskal doinu herrikoien usain gozoa darien bi mezak.

Elizbarrutiko Liturgia Batzordearen esanetara eta aspaldiko lagun zuen Belloc-eko Aita Iratzeder eta besterekin lan eginez, Euskal Herriko elizetan egunero abesten diren hainbat goratzarre, antifona, salmo eta bestelako kantu eder utzi zizkigun.

## Sariak

Sari asko jaso zituen Tomas Garbizuk. Besteak beste, Estatu mailako bost: 1954an, organorako egindako *Tríptico al Buen Pastor* obragatik; 1960an, Amabirjinaren Urte Santuan, *Missa Benedicta* mezagatik; 1964an eta 1965ean, *Baso Jaun* eta *Babiloniko* poema sinfoniko-koralengatik; 1966an, *Dos canciones populares* izenekoagatik.

Tokian tokikoak, berriz, beste hamar. Kantuetan, 1956an, *Zu ta ni*; 1966an *A Pamplona voy*; 1967an, *Garbiñe*; 1968an, *Ardi-yoalea* eta *Cuando llega la Navidad*. Abesbatzentzat burututakotan, berriz, *Canço de bressol*, 1945ean; *Baratzeko*, 1945ean; *San Vicente de la Barquera*, 1965ean; *Sor-lekua*, 1969an; eta txisturako egindako *Gure erria*, 1965ean.



Lezoko kontserbatorioa, Tomasen gerizpean.

Baina saririk hunkigarriena eta gogoangarriena Lezoko herriak eman zion, «Herriko Seme Kuttuna» izendatu zuenean. Handik aurrera

igandero azaldu ohi zen bere sorterrira, esker onez. Han eta hemen ibilia izan arren, huraxe baitzen bere kabia.



*Gure Mezaren grabaketarako Orfeoiarekin lanean.*

*Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak liburuxka honen material grafikoa ondorengoei esker lortu du:*

- *Serafina Iribar.*
- *M<sup>a</sup> Angeles Ormazabal.*
- *Irene Salaberria.*
- *Gipuzkoako organoak liburua.*
- *Euskal Kultura Gaur liburua.*

Zuzendaritza: Mikel Atxaga

Argitaraldia: I.a, 2001eko azaroa

Ale-kopurua: 2.425

© Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioa  
Kultura Saila

Argitaratzailea: Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia  
Donostia-San Sebastián, I - 01010 Vitoria-Gasteiz

Argazkilaria: Joseba Olalde

Fotokonposizioa: E.P.S., S.L.  
Beato Tomás de Zumárraga, 66 - 01009 Vitoria-Gasteiz

Inprimaketa: Gráficas Santamaría, S.A.  
Bekolarra, 4 - 01010 Vitoria-Gasteiz

ISBN: 84-457-1712-X  
84-457-1714-6

L.G.: VI-504/01

**EUSKO JAURLARITZA**



**GOBIERNO VASCO**

**KULTURA SAILA**  
Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza

**DEPARTAMENTO DE CULTURA**  
Viceconsejería de Política Lingüística